

Ordizian, 2015eko urriaren 19an, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran. Honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre jn.	Ordiziako EH-BILDU
Mila Sukia Galparsoro jn.	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras and.	EAJ/PNV
----------------------------	---------

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

BESTE BERTARATZE BATZUK

Bertaratu da, ere, gonbidatu gisa eta bozkatzeko eskubiderik gabe, Carlos Gonzalez Astiz jn. Irabazi-Ganemos Ordizia taldeko ordezkaria.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.- 2015eko irailaren 28ko bilkurako Tokiko Gobernu Batzarraren akta onartzea.
 - 2.- Fakturen zerrenda.
 - 3.- Kudeaketa plana.
 - 4.- Hondakinen bilketari buruzko kontsulta
 - 5.- "Euskal Baleazaleen Triskantza" dokumentala filmatzeko diru-laguntza.
 - 6.- Zenbait txosten eta eskaera.
- .- Industrialdeako pabiloi bateko jarduera.



GORABEHERRAK.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 13:39

AMAIERA ORDUA: 15:34



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2015eko irailaren 28ko bilkurako akta onartzea.

Aho batez onartu da.



2.- Fakturen zerrenda

46. zenbakidun zerrenda. Guztira: 51.712,31-€.

Faktura txikiak ere ikusi dira (<6000 €). 43,44,45 eta 47. zkia. duten zerrendak.

Jakinaren gainean.



3.- Kudeaketa plana.

Alkate jaunak lan-ildoak definitzen dituen kudeaketa plan bat behar dela adierazi du; horren bitartez era berean herritarrei kontuen berri emango zaie. Modu parte-hartzaile batean egiteko asmoa dago, kanpoko aholkularitza baten bidez.

Planaren ezaugarriei buruzko eztabaida sortu da eta enpresa bat kontratatzeko beharraren aurrean iritzi ezberdinak azaldu dira. Adostu da bilera bat egitea, gaia jorratzeko.



4.- Hondakinen bilketari buruzko kontsulta

Urriaren 8ko udalbatzako akordioaren ostean, Alkate jaunak kontsulta bat egiteko prozesuari hasiera ematea proposatu du.

Azaroaren 2an egingo den hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean gai bakar hori aztertzea erabaki da. Sasieta Mankomunitateak duen informazioa banatuko zaie aldez aurretik udal talde politikoei.



5.- "Euskal Baleazaleen Triskantza" dokumentala filmatzeko diru laguntza.

Alkate jaunak azaldu du dokumentalaren egileek diru-laguntza eskatu dutela.



6.- Zenbait Txosten eta eskaera.

Industrialdeako pabiloiaren jarduera: Arau Subsidiarioetan aldaketa bat egin behar den eztabaidatu da, gaur egun industrialdean ostalaritza jarduera jartzea galarazten baitute.

Sasieta: Azkeneko bileran Mankomunitatean sortutako zorra azaldu zen; zorra ia 1,7 milioi eurokoa da. Mankomunitatean dagoen diruzaintza-soberakinarekin zati bat estaltzeko proposamena egin da, gainerakoa Udalek ordainduko lukete. Ordiziari 91.000 euro inguru egokituko litzaizkioke.

Zorra sortu izanaren zergatien inguruan eztabaida sortu da.

Giza baliabideak: Alkate jaunak azaldu du zergatik aldatu diren Idazkaritza Saileko bi administrarien kokaleku fisikoak eta zergatik aldatu diren partzialki beraien funtzioak.

Zergak eta tasak: Gaia hurrengo osoko bilkuran aztertu aurretik, bilera monografiko bat egingo da.



7.- Norberak lekarkeenak.

Iñaki Dubreuil jaunak proposatuta zinegotziei zenbait udal sailen (gizarte ongizatea, berdintasuna, immigrazioa...) programazioa aurkezteko datak zehaztu dira.

Mila Sukia andreak bere adostasuna azaldu du iraileko pintaketan ondorioz garbiketa gastuei buruz atera zen bandoaren inguruan.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.